

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Lehia Zuzendaritzak zigor-espeditentea ireki die garraio sektoreko elkarte bati eta 39 enpresari lehiaren aurkako jardunbideengatik

Lehiaren aurkako ustezko jardunbideak ikertzen ari da Nafarroako eskola-garraioaren zerbitzuko lizitazio publikoetan

Ostirala, 2018.eko azaroak 23

Nafarroako Gobernuak Lehia Zuzendaritzak zigor-espeditentea ireki die garraioaren sektoreko elkarte bati eta 39 enpresari, Nafarroako eskola-garraioaren zerbitzuko lizitazio publikoetan (2013. eta 2017. urteetan) izandako lehiaren aurkako ustezko jardunbideengatik (Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 1. artikulua ustezko arau-haustea). Espeditentearen irekiera ikertuei eman zaie ezagutzera dagoeneko.

Informazio erreserbatu horren ondorioz, Lehia Zuzendaritzak lehiari buruzko araudian debekatuta dauden jokabideen arrazoizko zantzuak egiaztatu ahal izan ditu, eta ostegun honetan, ikertuei zigor-espeditentearen irekieraren berri eman eta Lehiaren Defentsari buruzko legearen 43. artikulua araberaz, zuhurtziaz eta isilpekotasunez jokatzea behartuta daudela gogoratu die. Betebehar honek ikerketa-prozesua nahiz zigor-espeditentearen ebazpena babestea du helburu.

Espeditentearen irekierak ez du aurretiaz baldintzatzen ikerketaren bukaerako emaitza. Orain, 18 hilabeteko gehieneko epea ireki da, Nafarroako Lehia Zuzendaritzak zigor-espeditentea bideratu eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak horren gaineko ebazpena eman dezan.

Zigor-espeditentea honako merkataritza sozietate hauei dagokie:

La Burundesa, S.A.; La Baztanesa, S.A.; Leizarán Mariezcurrena Hermanos, S.L.; Ceferino Apezetxea Eta Semeak, S.L.L.; Autobuses Gurbindo, S.L.; Autobuses Latasa, S.L.; Autobuses Parra, S.L.; Autobuses Urederra S.L.; La Estellesa, S.A.; Riojana de Autocares, S.L.; Automóviles Río Alhama, S.A.; Autobuses Jiménez, S.L.; Alberto Elcarte, S.L.; Autobuses M. Litago, S.L.; Autobuses Gurra Hermanos, S.L.; Autobuses Olloqui, S.L.; Autocares María José, S.L.; Falces Autobuses Sánchez, S.L.; La Tafallesa, S.A.; Ativar, S.L.; Autobuses La Pamplonesa, S.A.; Autobuses Río Irati, S.A.; Autocares Albizua, S.L.; Autocares Félix Gastón S.L.; Autocares Oroz, S.L.; Autocares Oyarzun Oroz, S.L.; La Muguiroarra, S.L.; Autocares Ibargoiti, S.L.; Autocares Peche, S.L.; Fonseca Bus, S.L.; Limutaxi, S.L.; La Veloz Sangüesina, S.L.; Autobuses La Estellesa, S.L.; Autobuses y Garaje Bariáin, S.L.; Logroza, S.L.; Autobuses Pamplona Madrid, S.L.; Compañía Navarra de Autobuses, S.A.; eta Eugenio Díez, S.A.

Gainera, espeditenteak Errepide bidezko Garraio eta Logistikako

Enpresarien Nafarroako Elkartearen (ANET) jokabidea ikertuko du, lehiari buruzko arau-hauste honi dagokionez.